



Esp. kodea: 2024KZUD0006

Titularra: TXORBELA OTXOTE ELKARTE
MUSIKALA

Gaia: Txorbela otxotea: Hitzarmena 2024

Hitzarmena

Arrasaten 2024ko ekainaren 3an

Txorbela Otxotea elkarte eta Arrasateko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena: 2024 urtea

Alde batetik Maider Morras Azpiazu, Arrasateko Alkatea

Bestetik Mikel Balantzategi Arantzabal NAN 15.353.247 B Arrasateko Txorbela Otxotea elkartearen lehendakaria

Alde biek hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

ADIERAZI DUTE:

- Arrasateko Txorbela Otxotea kultura elkarteak 2024an 16 urte beteko ditu.
- Arrasateko Udalak interesa dauka Txorbela Otxotearen jarduera laguntzeko, Otxoteak herri mailan duen oihartzun eta eragina kontuan hartuta.
- Hitzarmen hau gauzatzeko eskumena aitortzen dio Udalari 2/2016 Legeak, Toki Erakundeei buruzkoak. Legearen 17. Artikuluak jasotzen du Udalaren eskumen propioen artean haxe: “Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea”.

Alde biak bat etorri dira lankidetza hitzarmen hau sinatzeko, honako klausulen arabera:

KLAUSULAK

- Lehena:** Arrasateko Udalak 6.000 euroko laguntza emango dio Txorbela Otxotea kultura elkarteari 2024 urtean.
- Bigarrena:** Laguntza ordainduko da bi zatitan:
 - Laguntzaren %60, 3.600 euro, hitzarmena sinatu eta beranduenik hamabost egunera.
 - Gainerakoa laguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikazioa aurkeztu beharko da 2025ko urtarrilaren 15a baino lehen eta egin ahal izango da 2024ko laguntza deialdiaren 23. artikulua jasotako moduetako baten.
- Hirugarrena:** Txorbela Otxoteak 4 emanaldi edo kontzertu burutuko ditu Arrasaten herriko kultur eskaintza sendotu eta aberasteari begira. Kontzertuetarako data zehatzak adostuko dira Otxote eta Udalaren ordezkarien artean, baina, mugarri hauek jarri dira kontzertuen antolaketa planifikatzeari begira: 1) San Juan Jaia, 2) Santamasak, 3) abenduaren 31n emanaldia kaleetan zehar, eta 4) adosteko.

Kodea	BD24/00011	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA11RWH.E.hAaf		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11RWHE.hAaf		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2024KZUD0006

Titularra: TXORBELA OTXOTE ELKARTE
MUSIKALA

Gaia: Txorbela otxotea: Hitzarmena 2024

- **Laugarrena:** Txorela Otxoteak kaleratzen dituen kartel edota gainerako inprimaki eta abarretan, nahiz jendaurrean edota hedabideen aurrean egiten dituen agerraldietan adierazi beharko du Arrasateko Udalaren laguntza jasotzen duela.
 - **Bosgarrena:** Hitzarmenaren jarraipena egiteko osatutako da lantaldea. Lan taldea hauek osatuko dute: Arrasateko Udalaren ordezkariak izango dira Kultura Batzordeko burua eta Kultura teknikaria, eta Txorbela Otxotea ordezkatzeko dute Mikel Balantzategi eta Jesus Maria Zabala; hiru hilabetetik behin elkartuko dira proiektuen garapenaren berri izateko.
 - **Seigarrena:** Indarraldia. Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31 artekoa izango da
- Ados daudela adierazteko alde biek hitzarmen hau sinatu dute idazpuruan adierazitako egun eta lekuan

Txorbela Otxotea

Alkatea

Kodea	BD24/00011	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA11RWH.E.hAaf		
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA11RWHE.hAaf		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			



